



Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Plan Orokorren Aurrerako Dokumentuari buruzko Aurretxostena

Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Plan Orokorren (aurrerantzean, labur: Hondakin Plana) Aurrerako Dokumentuari ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketa egin behar zaio nahitaez, hala agintzen dutelako Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteko 1998ko otsailaren 27ko 3/98 Legeak, 41. artikuluan, eta Ingurumen eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzen duen 2003ko uztailaren 22ko 183/03 Dekretuak, 3. artikuluan.

Gipuzkoako Hondakin Plana sartuta dago, baita, estatuko Plan eta programa batzuen ingurumen eragina ebaluatzeari buruzko 2006ko apirilaren 28ko 9/06 Legearen aplikazio eremuan.

2007ko azaroan, Garapen Iraunkorreko Departamentuak aurre kontsultei buruzko memoria azalpen-emaile bat prestatu zuen, eta hari jarraituz galdera egin zitzaizen gaiari lotutako administrazio eta organismo publikoei eta jende interesatuari, Hondakin Planaren Aurrerako Dokumentuari buruzko ingurumen eraginaren azterketan jaso beharreko informazioaren hedaturari eta zehaztasun mailari buruz, hala xedatuta baitago 183/2003 Dekretuaren 6. artikuluan eta 9/2006 Legearen 9.ean.

Ildo horretan, 2007ko azaroaren 16an, Garapen Iraunkorreko Departamentuko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak kontsulta tramitea zuzendu zien zerrenda honetan ageri diren administrazio eta jende interesatuari:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia
- Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontroleko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikorako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailordetza
- Eusko Jaurlaritzaren Plangintza Hidrologikorako Bulegoa
- Donostiako Udaleko Osasun Ingurumen eta Kontsumo Zuzendaritza
- Tolosako Udala
- IHOBE. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
- Aranzadi Zientzia Elkartea
- Plaiaundiko Parke Ekologikoa
- Eguzki Talde Ekologista.
- Greenpeace.
- Donostia Bizirik.
- Ekologistak Martxan.
- Arnasa
- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa
- San Markosko Mankomunitatea
- Debarreneko Mankomunitatea



- Debagoieneko Mankomunitatea
- Sasietako Mankomunitatea
- Urola Erdiko Mankomunitatea
- Urola Kostako Mankomunitatea.
- Tolosaldeko Mankomunitatea.
- Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea
- Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
- Añarbeko Ur Mankomunitatea
- Debegesa. (Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarte)
- Debagoieneko Mankomunitatea (Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentzia)
- Oarsoaldea SA (Oarsoaldea Eskualdearen Garapenerako Elkarte)
- Goieki. (Goierri Eskualdearen Garapenerako Agentzia)
- Urola Kostako Udal Elkarte. (Urola Kostako Garapen Agentzia)
- Iraurgi Lantzen SA (Urola Erdia Eskualdearen Garapenerako Agentzia)
- Uggasa (Urola Garaiko Garapen Agentzia)
- Donostiako Sustapena - Fomento de San Sebastián S.A.
- Oiartzungo Eskualdeko Nekazaritza Bulegoa
- Fraisoro Nekazaritza Eskola
- Tolomendi (Tolosaldeko Landa Garapeneko Elkarte)
- Debemen (Debabarreneko Landa Garapeneko Elkarte)
- Goimen (Goierriko Landa Eremuen Garapeneko Elkarte)
- Urkome (Urola Kostako Landa Garapeneko Elkarte)
- Behemendi (Donostialdeko eta Bidasoako Landa Garapeneko Elkarte)
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- ELA sindikatua
- CCOO sindikatua
- Plazandreok
- Inasmet fundazioa
- "Instituto para la Sostenibilidad de los Recursos"
- Industria Ingeniarren Goi Eskolako Ingeniaritza Kimikoko Saila
- Kimika Fakultateko Kimika Aplikatuko Saila
- Deustuko Unibertsitateko Giza Zientzien Fakultatea
- Gipuzkoako Merkataritza Ganbera
- Mariaren Bihotza Ikastola.
- Txindoki Institutua
- La Anunciata Ikastetxea.
- Bidebieta Institutua
- "Bidasoa" Lanbide Heziketako Institutua
- Zubietako Herri Eskola
- Landaberri Ikastola
- Eibarko Dendarien Elkarte
- Gipuzkoako Ostalaritza Elkarte
- San Joxepe Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarte
- Aranzazu, etxeoandre eta kontsumitzaileen elkarte
- GILBE (Gipuzkoako Lorezale eta Barazkigileen Elkarte)
- Emaus fundazioa
- Sarea fundazioa
- Grupo Eroski fundazioa
- Legazpiko Ingurugiro Zentroa
- MCC Mondragon Korporazio Kooperatiboa



- Getariako Txakolina sormarka
- Matia Egoitza
- Konposgune SL
- Asfaltos Naturales de Campezo SA
- Artelatz. Ingurugiro Zerbitzuak Koop.
- M.A.S. SA
- DPA (Desarrollo y Promoción Ambiental)
- Ekos Estudios Ambientales SL, eta
- Ainhoa Kintana Martinez, interesatu zerrenda luze baten izenean.

Ildo berean, Garapen Iraunkorreko foru diputatuaren 2008ko otsailaren 19ko Foru Aginduaren bitartez, Hondakin Planaren Aurrerako Dokumentuaren prestakuntzari eta berorren ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketari buruzko Erreferentzia Dokumentua eman zuen. Agindu horretan azaltzen zen zer kontsulta egin ziren eta ondorengo informazio eta parte-hartze moduak nolakoak izango ziren, eta zehazten zen Hondakin Planak eta ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketak zer eduki, hedadura eta zehaztasun maila izan beharko zituzten.

Azkenik, 2008ko maiatzaren 21ean, Hondakin Planaren Aurrerako Dokumentua eta berari buruzko ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketa aurkeztu ziren Garapen Iraunkorreko Departamentuko Ingurumen Zuzendaritza Nagusian, zuzendaritza horrek hari buruzko ingurumen eraginaren aurrexostena egin zezan, hala agintzan baitu goian aipatutako 183/2003 Dekretuak 8. artikuluan.

Hondakin Planari dagokionez, helburu nagusi hauek ditu Aurrerako Dokumentuak: Gipuzkoako hondakinen kudeaketari buruz eskura dauden datu berriak biltzea eta aztertzea, etorkizunera begira egindako hondakinei buruzko aurreikuspenak eguneratzea, hondakinen prebentzio eta kudeaketa gaietako arautegi eta estrategia berrietan jasota dauden zehaztapenak bereganatzea, hondakin kudeaketari dagokionez indarrean dagoen plangintzaren edukiak ebaluatzea, kudeaketa orokorrari buruz bere garaian onartu ziren helburuak berrikustea, antolaketari eta gizartearen parte-hartzeari buruz bere garaian zirriborratutako alderdiak garatzea, eta alternatibak proposatzea.

Horretarako, Aurrerako Dokumentua hiru zati nagusitan egituratua dago. Hauek dira:

A zatia: Kapitulu hauek ditu: 1) Sarrera, 2) 2001-2006 aldiko garapen estrategiko eta juridiko berriak, 3) Hondakin kudeaketaren parametro nagusien bilakaera 2000-2006 aldian, 4) Hondakinen ezaugarriak eta osaera, eta 5) Hondakin Planeko hondakinei buruzko aurreikuspena eguneratzea eta helburuak egokitzea. Xede deskribatzaile eta aztertzaileko kapitulu horiek asmo hauekin egin dira: Europa, estatu eta erkidego mailetako esparru juridiko eta estrategiko berria Planean sartzeari; Hondakin Planaren aurreikuspenak urte hauetan eratu den administrazio eta antolaketa esparru berrira egokitzea; eta gaurko hondakinen kudeaketari eta ezaugarriei buruzko datuak jakitea, Aurrerako Dokumentuaren aldira estrapolatzeko (2016), dokumentuaren oinarri nagusia osatzen duten programen helburuak eta kudeaketa eta jarduketara lerroak gorantz errebisatu beharko baitira.

B zatia: Kapitulu hauetan Aurrerako Dokumentuak programa espezifiko hauek garatzen ditu:

Prebentzio Programa: 2016rako prebentzio helburua 58.927 tona hiri hondakin ez sortzea da –etxeko hondakinak (EH) eta etxeko hondakinekin asimilagarriak diren industria, merkataritza eta erakundeetako hondakinak (IMEHA)–; kantitate hori Gipuzkoan urte horretan sortuko liratekeen hiri hondakin guztien %10,6 izango litzateke, prebentzio politika aktiborik egin gabe haziko balitz hondakinen sorrera. Programa honekin ekintza lerro eta



kudeaketa lerro hauek ezarri eta garatu nahi dira: Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumena hobetzeko plana, ekodiseinuko ikergela, etxean konpostatzeko programa, Berreskuratzeko eta Berrerabiltzeko Zentroa (Ekocenter), tamaina handiko hondakinen gaikako bilketa atez atekoa, prebentzio ekintzetarako diru laguntzak emateko dekretuak, hondakinak jatorrian gutxitzeko hitzarmena egitea Gipuzkoako Ganberarekin, fiskalitate neurriak, informazio eta kontzientziatze ekintzak (*Basurama* erakusketa, prebentzioa sustatzeko kanpaina, Prebentzioaren Astea, "100 kg gutxiago" eta "Nire hondakin-kopurua murrizten dut" proiektuak, Hezkuntza Sailarekin lankidetzaren hitzarmena), Gipuzkoako Elikagaien Bankua, eta Gipuzkoako hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Behatokia.

Birziklatze Programa: 2016rako birziklatze helburua 282.176 tona hiri hondakin, hau da, sortzen diren hiri hondakin guztien %56,9, edo birziklatzea (%46,2) edo konpostatzea (%10,8) da; horretarako, garbigune eta minigarbigune berriak jarri beharko dira, eta hondakinak gaika biltzeko edukiontzien antolaketa hobetu beharko da (beira, paper-kartoiak, ontzi arinak, gainerakoak, eta materia organikoa biltzeko 5. edukiontzia).

Konpostatze Programa (aurreko programaren berezitasun bezala): Gipuzkoan materia organiko konpostagarriaren hobiak non dauden, eta ekoiztutako konpostarentzat zer muga dauden, hau da, zertan eta non erabil daitezkeen (lore zaintzan eta paisajismoan) kontuan hartuta, Hondakin Planaren aldean (kimaketako eta lorezaintzako hondakin berdeak konpostatzea aurreikusten baitzuen), konpostatze programa indartzeko asmoa ageri du Aurrerako Dokumentuak, kalitate oneko konposta lortzeko bi mekanismo nagusi hauek jarririk: 5. edukiontzia, giltzapekoa (sistema zentralizatua), eta hondakin sortzaile handientzat, sortzaile berezientzat eta dentsitate txikiko etxeguneetarako atez ateko sistema. Horrela, 2016rako, etxeko konpostetik, 5. edukiontzitik, kimaketa eta lorezaintzatik eta hondakin sortzaile handietatik etorritakoak bilduta, 59.017 tona konpostatzea espero da. Horretarako, 5. edukiontzia jarriko da arian-arian, eta behar diren materia organikoa tratatzeko plantak jarriko dira (hiru, Gipuzkoa guztian).

Balorizazio Energetikoko Programa: Hiri hondakinen kudeaketan helmugako sistema dela-eta erakunde eta politika mailan izan diren aurrekariak aintzat hartuta, Aurrerako Dokumentuak hondakinen gainerako zatiaren helmugatzat horien balorizazioa aurreikusten du (247.219 tona hondakin, sortutakoen %46,7). Testuinguru horretan alternatiba hautagarri bat baino gehiago aurreikusi dira, Aurrerako Dokumentuaren gaurko egoeran oraindik itxi gabe daudenak; nolahi ere, hondakinen transferentzia gune batzuk beharko dira:

- Oinarrizko jarduna: errausketa bidez planta bakarrean lortuko da bertara bildutako hondakinen balorizazio energetikoa (lehen mailako hondakinen gainerako zatia, hondakin uren araztegi-tako lohiak eta lehen mailako hondakinen birziklatzetik eta konpostatzetik datozen bigarren mailako hondakinak).
- Oinarrizko aldatze jarduna: lehen mailako etxeko hondakinen gainerako zatiari aurretratatamendu mekaniko biologikoa egingo zaio, zentralizatuta.
- Oinarrizko aldatze jarduna: lehen mailako etxeko hondakinen gainerako zatiari aurretratatamendu mekaniko biologikoa egingo zaio, deszentralizatuta.

Aurretratatamendu mekaniko biologikoa zaborra lehertzeko egiten da batez ere, horrela pisua gutxitzen baitzaio (%30) eta bero ahalmena gehitu, balorizazio energetikorako erraustegira eramanez aurretik.

Zabortegi Programa: 2016rako zabortegetara lehen mailako hondakinik batere ez botatzea da aukera estrategikoa. Balorizazio energetikorako alternatiba bat edo beste aukeratu, lehen eta bigarren mailako hondakin guztien % 2-2,8 bitarte bakarrik joango litzateke



zaborteaira, Aurrerako Dokumentuko kalkuluaren arabera. Hortaz, 2007-2016 aldian lan hauek egitea aurreikusi du: San Markosko zaborteaira behin betiko ixtea; Sasieta, Urteta eta Lapateko zaborteaira egokitu eta kudeaketa moldatzea; soberako eteko hondakinak aldameneko lurraldeetara eramatea, balorizazio planta lanean hasi arte; Sasieta, Urteta eta Lapateko zaborteaira ixtea; birziklatzeko edo konpostatzeko baztertutako hondakinak kudeatzeko kontratuak egitea Gipuzkoan dauden industriako hondakin geldo ez arriskutsuen zaborteaira publiko nahiz pribatuekin; errausketa bidezko balorizazio energetikoko plantan sortutako errautsak eta hango gasen arazketatik ateratako hondakinak kudeatuko dituztenekin kontratuak egitea.

C zatia: Kudeaketaren antolaketa, alde batetik, eta gizartearen eta erakundearen parte-hartzea, bestetik, garatzen ditu. Kudeaketari lotuta, agenteen arteko harremanak –udal, mankomunitate, Aldundi, Kontsortzio, etab.–, hondakinen Prebentziarako eta Kudeaketarako Behatokiaren funtzionamendua, beharrezko informazioaren kudeaketa, hondakinen ezaugarriak aldi-aldi aztertzea, etab. jorratzen ditu, eta parte-hartzeari dagokionez, Gipuzkoan Hiri Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketaren Kontseilua sortzea, etab.

Bestalde, Hondakin Planaren Aurrerako Dokumentuaren ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketak hondakinen kudeaketaren helburu estrategikoak deskribatzen ditu, alde batetik, eta alternatiba hautagarrien lehen aurkezpen bat egiten du, bestetik.

Ebaluazioak Aurrerako Dokumentuko helburu eta zehaztapenekin lotura izan lezaketen beste plan edo programa batzuk kontuan hartzen ditu, elkarreragina aztertzeko, baina gaiari benetan heldu gabe, kasu batzuetan aipamen soila egiten baitu, eta beste batzuetan plan eta programa horien edukiak laburtu besterik ez, argitu gabe Aurrerako Dokumentuak zertan eta nola kontuan hartzen dituen plan horien estrategiak, irizpideak eta helburuak, bereak zehazteko orduan.

Aurrerako Dokumentuak hartzen duen eremuari dagokion diagnostikoari eta ingurumen balorazioari eskaintzen dion atalean, Gipuzkoa mailako ingurumen aldagai orokor hauek laburbiltzen ditu, eta haien egoera orokorraren balorazioa egiten du: klima, airearen kalitatea, geologia, edafologia, litologia, geomorfologia, kutsatuta egon daitezkeen lurak, lurrazaleko eta lurpeko hidrologia, uren kalitatea, landaredia, fauna, espazio naturalak, eragindako arriskuak eta eragozpenak, kultura ondarea, paisaia, eta elementu sozio-ekonomikoak.

Ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketak, hurrengo atalean, Aurrerako Dokumentuko hiru alternatibak deskribatzen ditu, 0 aukera baztertuta (gaur egungoan jarraitzea), 0 aukera ez datorrelako bat, ez Europar Batasuneko hondakinen kudeaketari buruzko estrategiarekin, ez ingurumen gaitako 6. programarekin, eta ez Kyotoko protokoloarekin, beste kudeaketa sistema batzuk badauden arren ez dituelako behar adina gutxitzen metano igorpenak (berotegi efektua eragiten duen gas nagusietako bat). Ebaluazioaren arabera, Aurrerako Dokumentuak azaltzen dituen hiru alternatibak teknikoki arrazoizkoak eta ingurumen aldetik bideragarriak dira. Horri dagokionez, ingurumen eraginari buruzko aurretikosten honek beharrezkotzat joko du alternatiben azterketa sakontzea, Aurrerako Dokumentuan azkenik zein alternatiba hautatzea komeni den jakin ahal izateko.

Ebaluazioak, Aurrerako Dokumentuko helburuen eraginak identifikatu eta baloratzen dituenean, oro har eragina positiboa dela ondorioztatzen du, hondakinen kudeaketa iraunkorra lortzeko pentsatua izan delako, Europa, estatu eta erkidego mailetan ezarrita dauden printzipio eta estrategiekin bat eginik. Aurrerako Dokumentuko zehaztapenen eraginak baloratzen dituenean, eta kontuan hartuta dokumentuak zer xehetasun maila duen (lehen hurbilketa, oraindano ez baitu aukeratu balorazio energetikoko programa hautagarrien artean), eragin gehienak bateragarriak edo neurritsuak direla dio, baina



animalientzat, landareentzat eta hots kalitatearentzat eragin larriak aurreikusten ditu, funtzionamendua behar bezalakoa ez bada.

Ebaluazioak ingurumen eraginaren neurri babesle eta zuzentzaileei eskaintzen dien atalean eta ikuskapen programari eskaintzen dionean, Aurrerako Dokumentuan proposatzen diren azpiegiturei dagozkien zenbait alderdi aipatzen dira, eraikuntza fasean edo funtzionamendu fasean kontuan hartzekoak. Kontu horietan, Aurrerako Dokumentuaren ingurumen eraginaren azterketan proposatzen diren neurri babesle eta zuzentzaileak eta ikuskapen programa ikusita, esan behar dugu Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurraldeko Alorreko Planean jaso behar liratekeen neurriak direla gehienbat, are gehiago, batzuk azpiegitura horien proiektuetan jasotzekoak direla; beraz, aurretosten honetan, Aurrerako Dokumentuan zehaztu beharrekoak diren kudeaketako eta jarduketa orokorreko aukerak hobetzeko direnak aipatuko ditugu.

Hala, bada, ondorio bezala, iruditzen zaigu ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketa, nahiz eta 183/2003 Dekretuaren eranskinean ezarrita dauden atal orokorreari jarraituz egina dagoen, hobetu egin beharko dela modu egokian erantzun diezaien, alde batetik, eranskin horretan bertan aipatzen diren edukiari eta metodologiari, eta, bestetik, Aurrerako Dokumentuaren Erreferentzia Dokumentuan departamentu honek ezarri zituen zehaztapenei. Horrenbestez, helburu horrekin, ingurumen eraginari buruzko aurretosten honetan baterako ebaluazio azterketan egindako azterketa hobetuko duten zehaztapen batzuk finkatuko dira.

Aurkeztutako dokumentazio teknikoa aztertu ondoren, eta 2003ko uztailaren 22ko 183/03 Dekretuko 3. eta 5. artikuluetan eta 1998ko otsailaren 27ko 3/98 Legeak 44.2 artikuluan xedatutakoa aplikagarria izanik, eta kontuan hartuta plana onartzeko eskumen nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiarena dela kasu honetan, Ingurumen eraginaren aurretosten eta behin betiko txostena emateko eskumena duena Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentua da.

Hori guztia kontuan izanik, eta 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuko 9. artikuluan aurreikusitakoa betez, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Plan Orokorraren Aurrerako Dokumentuari buruzko **ingurumen eraginaren aurretosten hau** egiten dugu:

Lehenengo.- Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Plan Orokorraren Aurrerako Dokumentuak gaiari buruzko foru arauaren aurreproiektua Diputatuen Kontseiluan onartu aurretik behar duen berraztertze eta sakontze prozesuan, kontuan hartu behar dira ingurumen eraginaren aurretosten honetan ezartzen diren ingurumen zehaztapenak, ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketan ezarritakoez gainera. Ahal den neurrian, ingurumen zehaztapen hauek guztiak Aurrerako Dokumentuan dagozkien ataletan txertatu behar dira.

Bigarren.- Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Plan Orokorraren Aurrerako Dokumentua eta beraren ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketa berregokitu egin beharko dira, tramitatzekoan plan horretako zehaztapen guztiek beharrezkoa duten xehetasun maila emanda, eta, gainera, adierazpen hauek ere kontuan hartuta:

1. Beste plan edo programa batzuekiko elkarreraginaren analisia.

Atal honetan Aurrerako Dokumentuarekin lotura duten beste planak laburbiltzea baino gehiago egin behar da, hau da, horrelako plan eta programek dakartzaten gidalerroak eta irizpideak Aurrerako Dokumentuan kontuan hartu eta sartu diren aztertu behar du, baita nola



sartu diren ere Aurrerako Dokumentua osatzen duten helburu, irizpide, alternatiba eta jarduketak diseinatzeko orduan. Beraz, atal hau oso-osorik berraztertu beharko da, 183/2003 Dekretuaren eranskinak edozein planen baterako ebaluazio azterketaren barnean atal honi ematen dion benetako helburua betetzearren.

Ildo horretan, eta planaren Erreferentzia Dokumentuan bere garaian ezarritakoaren osagarri gisa, atal hau berregiterakoan gidalerro hauek kontuan hartu beharko dira:

- *Hondakinen kudeaketarekin lotutako gidalerro, zuzentarau, plan eta legeak:* Aurrerako Dokumentuak ezartzen dituen helburuak eta beroriei buruz egiten duen analisia ikusita, eta alferrikako bikoizketak saihestearren, ingurumen eraginaren azterketak aipatu egin behar du dokumentu horretan xedatutakoa eta argudiatutakoa, eta, analisia osatzeko, Erreferentzia Dokumentuan aipatzen diren gainerako plan, programa eta proiektuekin Aurrerako Dokumentua zenbateraino egokitzen den aztertu behar du, Aurrerako Dokumentuaren beraren zehaztapenen xehetasun maila kontuan hartuta.
- *Lurralde osagaia duten planak:*
- Aurrerako Dokumentuaren Erreferentziako Dokumentuak esaten duen bezala, Gipuzkoan lurralde osagaia duten planetan (Lurraldeko Alorreko Planak, Natura 2000 sarea, espezie mehatxatuen kudeaketa planak, etab.) jasota dauden gidalerroak eta irizpideak aldi berean egiten ari den Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurraldeko Alorreko Planaren inguruko prestaketa prozesuaren barnean aztertu behar dira, plan hori baita gai honetako azpiegiturak lurraldean banatzen eta kokatzen dituen; eta Aurrerako Dokumentuko analisiak Erreferentziako Dokumentuan aipatutako planak, programak eta estrategiak aztertu behar ditu, bere helburu eta zehaztapenetan zuzenean eragiten duten neurrian (hondakinak behar bezala tratatzeko helburuak eta kudeaketa eta jarduketa lerroak ezartzea).

2. Teknikoki arrazoizkoak diren alternatiben ingurumenari buruzko azterketa, eta azkenean hautatzen den alternatiban aurreikusitako jarduketan eraginaren identifikazioa eta balorazioa

Ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketak alternatiben azterketa bat aurkezten du, baina horren edukiaren egiturak ez die guztiz jarraitzen 4. atalak izan behar dituen azpiataleak, 183/2003 Dekretuaren eranskinean ezarritakoaren arabera. Horren ondorioz, ebaluazioaren atal hori berregin beharko da eta Dekretuari egokitu, alderdi hauek bereziki zainduta:

- *Alternatiba desberdinak baloratzeko erabiliko diren ingurumen faktore diskriminatzaileen deskribapena.* Faktore horiek definitzerakoan Erreferentziako Dokumentuan iraunkortasunari eta ingurumena babesteari buruz ezarritako helburu eta irizpideekin lotuta dauden alderdiei begiratuko zaie (aire, ur eta lur garbiak eta osasuntsuak ziurtatzea, baliabide naturalen kontsumoa gutxitzea, hondakinak ondo kudeatzea eta klimaren aldaketaren gaia kontuan hartzea). Horretarako, alternatiben azterketan, honelako konparaketa faktoreak erabil daitezke: atmosferaren kalitaterako kalteak, uraren kalitaterako kalteak, arriskuak eragiteko probabilitateak, lurraren eta beste baliabide natural batzuen kontsumoa, berotegi efektua eragiten duten gasak igortzea, energia kontsumoa, etab.).
- *Alternatiba desberdinek eragindako ondorio nagusien deskribapen eta balorazio orokorra.* Erreferentzia Dokumentuko 4. atalean esaten den bezala, deskribapenaren



eta balorazioaren gaia Aurrerako Dokumentuan aurreikusten diren kudeaketa eta jarduketa lerroei lotutako eraginak izan behar dute, eta, bereziki, balorizazio energetikoko programan deskribatuta dauden hiru alternatibei dagozkienak. Ildo horretan, Aurrerako Dokumentuak ezartzen dituen hedadura eta zehaztapenak kontuan hartuta, aurreko epigrafean aipatutako faktoreetan eragin nabariak ekar ditzaketen ekintzak egon daitezke lotura, alde batetik, hondakinen kudeaketarako behar diren azpiegituren kopuruarekin eta motarekin, eta, bestetik, hondakinen bilketa eta garraio logistikarekin.

- *Azkenean hartutako erabakiaren justifikazioa eta gainerako alternatibak baztertze*ko arrazoiak azalduko dira bukatzeko. Azkenean aukeratzen den alternatiba justifikatzerakoan, 2007-2010 aldiko Ingurumeneko Esparru Programan eta 2020rako Ingurumen Estrategian ezarritako konpromisoekin zenbaterainoko koherentzia duen azalduko da.

Azkenean hautatzen den alternatiban aurreikusitako jarduketan eraginak identifikatzerakoan eta baloratzerakoan, 183/2003 Dekretuaren eranskineko 5. atalean eta 2008ko otsailaren 19ko Foru Aginduaren bitartez emandako Erreferentzia Dokumentuan jasotako gidalerroei jarraitu behar zaie.

3. Neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen proposamena.

Aurretikosten honen azalpen zatian esan dugun bezala, Aurrerako Dokumentuaren ingurumen eraginaren ebaluazioak proposatzen dituen neurri babesle eta zuzentzaileak azpiegiturekin oso lotuta daude, batzuk eraikuntza fasearekin eta beste batzuk funtzionamendu fasearekin, baina neurri horietako asko Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurraldeko Alorreko Planean jaso behar lirateke, eta, are gehiago, batzuk azpiegitura horien proiektuetan bertan; beraz, Aurrerako Dokumentuaren ingurumen eraginaren ebaluazioko atal hau berraztertu egin beharko da, Erreferentziako Dokumentuan horri buruz ezarritako gidalerroei jarraituz.

Ondorioz, Aurrerako Dokumentuaren behin betiko idazketan, azkenean hautatzen den alternatibako kudeaketa eta jarduketa hobetzeko hartzen diren neurri zuzentzaile eta babesleak zehaztu behar dira. Zuzenketa neurri horiek irizpide edo gidalerro orokorren erara eman daitezke, Aurrerako Dokumentuko proposamenak zehazteko eta kokatzeko egiten diren planak edo proiektuak diseinatzerakoan jarrai daitezen. Ildo horretan, puntu hauek kontuan hartu behar dira:

- Aurrerako Dokumentuko programen kudeaketa eta jarduketa aukerei buruz egindako azterketan proposatu diren prebentzio eta zuzenketa neurriak.
- Iradokitzen zaizkion prebentzio eta zuzenketa neurriak, direla hondakin gaitan eskumena duten administrazioek eginak, direla ingurumen gaitakoek edo aurreikusitako eraginek zuzenean ukitzen dituzten administrazio sektorialek eginak, direla jende interesatuak eginak -dokumentuaren jendaurreko informazio eta kontsulta fase derrigorrezkoetan emandako erantzunetan–.
- Hondakinen tratamenduari eta kudeaketari dagokionez, kutsaduraren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko araudiarekin (IPCC) bat datozen teknologia eskuragarririk onenei buruzko azterketa (MTD edo BAT), edukiaren xehetasun mailagatik Aurrerako Dokumenturako egokiak diren neurrian (BREF “Waste Treatments Industries” eta “Waste Incineration” dokumentuetan azaldutakoen antzera).



- Eraginkortasun energetiko handia, lurraren okupazio txikia, eta materialak aprobetxatu eta berreskuratzeko ahalmen handia irizpidetzat hartzea kudeaketa sistemetan eta azpiegituretan.
- Hondakinen garraioari dagozkion neurriak: ibilbideak eta abar optimizatzeko azterketak egitea.
- Parte hartzeko, prestakuntzako eta informazioko ekintzen plana.
- Ikuskapen programa bera (Aurrerako Dokumentuaren jarraipenerako eta kontrolerako mekanismoak), aurretikosten honetako hurrengo atalean azaltzen den eran.
- Hondakin Planean (22. atala) ezarri zena osatuz, bideragarritasun ekonomikoa aztertu beharko da Aurrerako Dokumentuko zehaztapenei dagokienez, eta eragin negatiboak aurreikusteari eta arintzeari dagokienez, dokumentuaren edukiaren xehetasun mailari egokituta.

4. Aurrerako Dokumentuaren ondorioak ikuskatzeko programa.

Aurrerako Dokumentuari buruzko neurri babesle eta zuzentzaileez egin den gauza bera egin daiteke dokumentuaren ikuskapen programarentzat proposatutako diseinuari buruz. Hortaz, ikuskapen programa Erreferentzia Dokumentuaren 7. atalean esaten denera moldatu beharko da, honako helburu hauek bideratu nahi baitira:

- Aurrerako Dokumentuko zehaztapenak ongi aplikatzen diren eta prebentzio eta zuzenketa neurriak zenbateraino betetzen diren ebaluatzea.
- Lurraldeko Alorreko Planean ezarritako ingurumen helburuak zenbateraino betetzen diren ebaluatzea.
- Planaren ingurumen eraginaren jarraipena egitea.
- Aurreikusitako gabeko eragin kaltegarriak identifikatzea, organo sustatzaileak behar diren neurri zuzentzaile berriak erabaki ditzan.

Jarraipen hori egiteko, Erreferentzia Dokumentuan aipatutako adierazleak erabil daitezke, eta zehaztu beharko da zein izango diren kalkulatzeko metodologia eta arduradunak, mugako eta erreferentziako balioak, eta kalkuluaren maiztasuna.

Aurrerako Dokumentuaren jarraipena eta ikuskapena egiteko sistema hau, ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketaren atala izan ordez, Aurrerako Dokumentuaren eta Hondakin Planaren berezko zatitzat hartu behar da, aipatu diren alderdiak ebaluatzeko balioko baitu. Eginkizun hori Gipuzkoako hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Behatokiaren ardurapean jar daiteke, Aurrerako Dokumentuan esana baitago sortu behar dela.

5. Laburpen dokumentua

Ingurumen eraginaren azterketak laburpen dokumentu bat eduki behar du, informazio teknikoa labur eta oro har biztanle guztiak ulertzeko moduan emateko prestatua, ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterketan jasota dagoen informazio guztiaren berri emateko, hala agintzen baitu 183/2003 Dekretuak eranskinaren 8. atalean.



Hirugarren.- Ingurumen eraginari buruzko aurretikosten honek, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Plan Orokorraren Aurrerako Dokumentua osatzen duten beste dokumentu guztiekin batera, legeriak ezartzen dituen jendearentzako informazio eta entzute tramite guztiak bete behar ditu, 183/2003 Dekretuak, ingurumen eraginaren ebaluaketa bateratua egiteko prozedura arautzekoak, 7.2 artikuluan dioenari jarraituz.

Donostia, 2008ko ekaina

INGURUMENeko ZUZENDARI NAGUSIA

Sin.: JAVIER ZARRAONAINDIA ZULOAGA